

## Euskarabideko egiaztapen proben ezaugarriak

### A1 mailako egiaztapen proba

			<b>Iraupena</b>
<b>Ulermena</b>	Ahozko ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi entzungai / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Entzungaien iraupena, guztira, 5-6 min. gutxi gorabehera.</li> <li>- Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo du azterketariak.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, lotu, taulak osatu eta abar.</li> </ul>	105 min.
	Idatzizko ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi testu / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Testuen luzera, guztira: 400 hitz gehienez.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/ gezurra, lotu, taulak osatu, testu zatiak kokatu, paragrafoak ordenatu eta abar.</li> </ul>	
<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Bi idazlan.</li> <li>- Ezaugarriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: gutxienez 40-50 hitz idatzi beharko dira. Argibideak edo informazioa emateko edo eskatzeko mezu elektronikoa, oharra, postala...</li> <li>2. ariketa: gutxienez 50-60 hitz idatzi beharko dira. Bizimoduaren berri emateko, plana proposatzeko, mezuari erantzuteko lagunarteko eskutitza, mezua, oharra, postala...</li> </ol> </li> <li>- Euskarria: mezua, argazkia, oharra...</li> </ul>		
<b>Mintzamena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Saioan azterketaria bakarka arituko da. Bi ariketa egin beharko ditu. Aldez aurretik proba prestatuko du. (10 min)</li> <li>- Ezaugarriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Aurkezpena. Azterketariak euren burua aurkeztuko dute epaimahaiaren aurrean, galdera batzuen laguntzaz. Denbora: 2 min.</li> <li>2. ariketa: Elkarriketa. Argazki ala galdetegi baten laguntzaz, azterketariak eguneroko gai bati buruzko galderak erantzunen dituzte. Denbora: 3 min.</li> </ol> </li> </ul>		15 min.

## A2 mailako egiaztapen proba

			<b>Iraupena</b>
<b>Ulermena</b>	Ahozko ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi entzungai / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Entzungaien iraupena, guztira, 8 min. gutxi gorabehera.</li> <li>- Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo du azterketariak.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/ gezurra, lotu, taulak osatu eta abar.</li> </ul>	120 min
	Idatzizko ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi testu / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Testuen luzera, guztira: 600 hitz gehienez.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, loturak egin, taulak osatu, testu zatiak txertatu, paragrafoak ordenatu eta abar.</li> </ul>	
<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Bi idazlan.</li> <li>- Ezaugarriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: gutxienez 50 hitz idatzi beharko dira. Argibideak edo informazioa emateko edo eskatzeko mezu elektronikoko laburra, oharra...</li> <li>2. ariketa: gutxienez 100 hitz idatzi beharko dira. Izandako esperientziak kontatzeko, proposamen laburrak egiteko, informazio pertsonala trukatzeko edo pertsonak deskribatzeko mezu laburrak, gutun pertsonalak.</li> </ol> </li> <li>-Euskarri bat izan dezakete: mezua, e-maila, argazkia...</li> </ul>		
<b>Mintzamena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Azterketariak bakarka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik proba prestatuko du. (10min)</li> <li>- Ezaugarriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Aurkezpena. Azterketariak euren burua aurkeztuko diote epaimahaiari, gidoi baten laguntzaz. Denbora: 2 min.</li> <li>2. ariketa: Solasaldia. Argazki ala galdetegi baten laguntzaz azterketariak aztertzailearekin mintzatuko dira haien gustuez eta bizipenez. Denbora: 3 min.</li> </ol> </li> <li>Aztertzaileek galderaren bat egiten ahal diote.</li> </ul>		15 min.

## B1 mailako egiaztapen proba

			<b>Iraupena</b>
<b>Ulermena</b>	Ahozko ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi entzungai / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Entzungaien iraupena, guztira, 10 min. gutxi gorabehera.</li> <li>- Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo du azterketariak.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, taulak osatu, eta abar.</li> </ul>	135 min
	Idatzizko ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi testu / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Testuen luzera, guztira: 800 hitz gehienez.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, galderak era erantzunak lotu, taulak osatu, testu zatiak kokatu, paragrafoak ordenatu eta abar.</li> </ul>	
<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Bi idazlan.</li> <li>- Ezaugarriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: gutxienez 75 hitz idatzi beharko dira. Argibideak edo informazioa eman- eskatzeko edo zerbait eskatzeko mezu elektronikoko labur, ohar, gutun pertsonalak, eskari-gutunak...</li> <li>2. ariketa: gutxienez 100 hitz idatzi beharko dira. Esperientziak edota gertaerak kontatzeko, azalpenak emateko, pertsonen, tokien eta gauzen deskribapenak egiteko, aholkuak emateko, proposamenak egiteko edo iritzi laburrak emateko mezuak, gutun pertsonalak, eskari-gutunak e.a</li> </ol> </li> </ul>		
<b>Mintzamena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Azterketariak bakarka ala binaka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik proba prestatuko dute, 10 minutuz.</li> <li>- Ezaugarriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>0. Aurkezpena: (Ez da ebaluatuko). Azterketariak labur-labur euren burua aurkeztuko dute.</li> <li>1. ariketa: Bakarrizketa. Proposatutako gaiaren inguruan mintzatu: azaldu eta iritzia eman. 3 min. Euskarria: gaia, testu laburra eta galdera lagungarriak.</li> <li>2. ariketa: Bat-bateko elkarrizketa. Adostasun/akordio batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatzea, informazioa eta iritzia trukatzea. Euskarria: egoera bat eta fitxa (argazkiak, gaiari buruzko zenbait aukera-egoera).</li> </ol> </li> </ul>		25 min.
Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko. 6 min. bien artean elkarrizketan jarduteko.			

## B2 mailako egiaztapen proba

			<b>Iraupena</b>
<b>Ulermena</b>	Ahozko <ul style="list-style-type: none"> <li>ulermena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi entzungai / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: 10-12 min. gutxi gorabehera.</li> <li>- Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo du azterketariak.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, taulak osatu, egia/gezurra eta abar.</li> </ul>	150 min
	Idatzizko <ul style="list-style-type: none"> <li>ulermena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi testu / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Testuen luzera, guztira: 1.000 hitz gehienez.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/ gezurra, taulak osatu, testu zatiak txertatu, paragrafoak ordenatu eta abar.</li> </ul>	
<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Bi idazlan.</li> <li>- Ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: gutxienez 125 hitz idatzi beharko dira. Zerbaiten berri emateko, eskaera egiteko, proposamenak egiteko, erreklamatzeko edo kexa aurkezteko gutuna.</li> <li>2. ariketa: gutxienez 125 hitz idatzi beharko dira. Iritzia emateko, gertaera batek eragindako jarrera edo sentimendua adierazteko, iruzkina, blogerako idazkia, iritzi-artikulua...</li> </ul> </li> </ul>		
<b>Mintzamena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Izangaiak bakarka ala binaka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik proba prestatuko dute, 10 minutuz.</li> <li>- Ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Bakarrizketa. Proposatutako gaiaren inguruan mintzatu: azaldu eta iritzia eman. 3 min. Euskarria: gaia, testu laburra eta galdera lagungarriak.</li> <li>2. ariketa: Bat-bateko elkarrizketa. Adostasun/akordio batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatzea, informazioa eta iritzia trukatzea. Euskarria: egoera bat + fitxa (argazkiak, gaiari buruzko zenbait aukera-egoera).</li> </ul> </li> <li>Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko. 6 min. bien artean elkarrizketan jarduteko.</li> </ul>		25 min.

## C1 mailako egiaztapen proba

			<b>Iraupena</b>
<b>Ulermena</b>	Ahozko <ul style="list-style-type: none"> <li>ulermena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi entzungai / bi ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Entzungaien iraupena, guztira, 10-12 min. gutxi gorabehera.</li> <li>- Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo du azterketariak.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, taulak osatu, egia/gezurra...</li> </ul>	165 min
	Idatzizko <ul style="list-style-type: none"> <li>ulermena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: gutxienez bi-hiru testu / bi-hiru ariketa.</li> <li>- Ezaugarriak: Testuen luzera, guztira: 1.200 hitz gehienez.</li> <li>- Gutxienez 15 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, testu zatiak txertatu, ordenatu, cloze testa eta abar.</li> </ul>	
<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Bi idazlan.</li> <li>- Ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: gutxienez 150 hitz idatzi beharko dira. Zerbaiten berri emateko, ezadostasuna adierazteko, eskaera egiteko, erreklamatzeko, kexa aurkezteko gutuna.</li> <li>2. ariketa: gutxienez 150 hitz idatzi beharko dira. iritzia, Iritzia emateko, iruzkina egiteko, gertaera baten aurrean ikuspuntua azaltzeko iritzi-artikulua.</li> </ul> </li> </ul>		
<b>Mintzamena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Azterketariak bakarka ala binaka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik proba prestatuko dute, 10 minutuz.</li> <li>- Ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Bakarrizketa. Proposatutako gaiaren inguruan mintzatu: azaldu eta iritzia eman. 4-5 min. Euskarria: gaia, testu laburra eta galdera lagungarriak.</li> <li>2. ariketa: Bat-bateko elkarrizketa. Adostasun/akordio batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatzea, informazioa eta iritzia trukatzea. Euskarria: egoera bat + fitxa (argazkiak, gaiari buruzko zenbait aukera-egoera).</li> </ul> </li> <li>Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko. 6 min. bien artean elkarrizketan jarduteko.</li> </ul>		30 min.